



**UDAKO ARTE**  
ERAKUSKETA

**LEKEITIO 2022**

**Uztailaren 11tik 17ra**

**Ane Undurraga**

**Barrutik**

**Uztailaren 18tik 24ra**

**Maite Herrero**

**Maskoten erretratoak**

**Uztailaren 25etik 31ra**

**Urbela Brouard**

**Fonoeskultura**

**Abuztuaren 1etik 7ra**  
**Iñaki Zubillaga**  
**Bilbotik Lekittora**

**Abuztuaren 8tik 14ra**  
**Amadou Sy**  
**Naturak emana**

**Abuztuaren 15etik 21era**  
**Edurne Naberan**  
**Nora Goyalde**  
**Adibidez, zuria**

# Uztailaren 11tik 17ra

# Ane Undurraga Arriaga

## Barrutik

### **ANE UNDURRAGA ARRIAGA** **(Ziortza-Bolibar, 1986)**

Giza-Zientziak eta Komunikazioan eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua. Txikitatik du artearekiko pasioa. Hainbat euskal hedabide eta kultur proiektuetan lan egin ostean, Marketing Digitalean Masterra burutu zuen. 2014an aldaketaren beharra sentituta psikoterapia prozesua lantzen hasi zen eta artean formatzen, hain zuzen ere, Igorreko kultur etxeko Benetako Sortze Prozesuaren Garapena Arte Plastikoaren bidez mintegietan eta Eibarreko Marrazketa eta Pintura eskolan. Pinturaren bidez barne mundua lantzen dihardu eta emozioen mundua ikertzen eta lanok Igorreko kultur etxean egin dituen bi erakusketa kolektiboetan erakutsi ditu. Erakusketa honetako pinturek pertsonak duen aldaketarako inpaktua aurkezten dute.

### ERAKUSKETAK

- 2016/ Igorreko kultur etxean "Ikuspegi femeninoak etorkizuna eraikitzen".
- 2017/ Igorreko kultur etxean "Prozesu sortzaile kontzienteak Igorren".



# Uztailaren 18tik 24ra

# Maite Herrero Castiella

## Maskoten erretratoak

**MAITE HERRERO CASTIELLA**  
**(Madrid, 1963)**

Arte Ederretako ikasketak hasi zituen EHU. Ondoren, ikasketak utzi zituen Calahorrako (Errioxa) Udaleko udal akademitan lana egiteko, ikastaroak eta marrazketa eta pintura tailerrak ematen haur eta helduentzat. Marrazkia eta pintura dira bere adierazpidea, gustuko duena eta bizirik sentitzen denarekin. Bere ibilbide artistikoan hainbat gai eta teknika jorratu ditu: olio akrilikoa, grafitozko eta kolorezko arkatzak eta errotiladoreak. Gaur egun, marrazki eta pintura eskolak ematen ditu Calahorrako CPAn eta Errioxako Rincón de Soton, elkarteetan eta klase partikularrak bere lantegian. Aire zabaleko tailerrak ere egiten ditu udalontzat eta elkarteentzat.

## ERAKUSKETAK

- 2018/ Calahorrako La Comedia tabernan "Husmcienes".
- 2019/ Logroñoko Ibercaja kutzako erakusketa aretoan "Natura eta Geometriak".
- 2019/ Santo Domingo de la Calzadako Ibercaja kutzako erakusketa aretoan "Natura eta Geometriak".
- 2019/ Calahorrako Cafetin tabernan "Pinturak".



# Uztailaren 25etik 31ra

# Urbela Brouard

## Fonoeskultura

### **URBELA BROUARD** **(Bilbo, 1971)**

Bere ibilbidea tailatzaile moduan 1994an hasten da. Lehenengo ikasbide urte bitan, taila ikastaro batzuetan parte hartzen du eta Bilboko Peñaskal Fundazioan zurgintza ikasten du. 1997an Txirlo-  
ra aroztegian lan egiten du eta aldi berean On-  
ki-Xin kultur alkartean eta Analla akademian zur  
lanketa ikastaroak ematen ditu. Beka baten bi-  
dez, 1999 eta 2000. urtean, nafartar Anda anai  
tailatzaileekin bere lana finkatzen du. Geroxeago,  
Jose Ramón Anda Goikoetxea eskultorea ezagu-  
tzen du eta urte baten zehar, berarekin lagun-  
tzaile bezala lan egiten du. Epealdi hau burutu  
ostean, 2001ean, lantegi propioa martxan jartzen  
du; URBELA. Gaur egun, eskultura soinudun abs-  
traktuaren sortze-prozesu barri batean murgil-  
duta dago; hauxe da “Fonoeskultura”.

### ERAKUSKETAK

- Hamaika artisau azoketan parte hartu du. Horien artean nabarmendu behar dira: Bilboko Artisau Azoka, Durangoko Euskal denda, Getxoko Artisau Azoka, Leioako artisau Azoka etab. Aldi berean kultur etxe eta alkarte desberdinetan zur lanketa arloan irakaslea da.





# Abuztuaren 1etik 7ra

# Iñaki Zubillaga Goitia

## Bilbotik Lekitora

### IÑAKI ZUBILLAGA GOITIA (Lekeitio, 1957)

Lekitton Goiko kalean (Dendari kalean) jaio eta 10 urterekin Bilbora joan zen bizitzera. Lekittoko arrantzaleekin maitemindurik ezin izan ditu haien irudiak burutik kendu. Hortik datorkio inspirazio guztia. 1974an hasi zen pintore autodidakta bezala pintatzen. 1985ean lan-arazoengatik utzi egin zuen eta ia 13 urtez pintatu gabe egon zen. Erakusketa honetan bere azken urteetako lanak ikusiko dituzue.

### ERAKUSKETAK

- 2004/ Lekeitioko Eskolape aretoan.
- 2014/ Bilboko Indautxu hoteleko erakusketa aretoan.
- 2015etik 2021era Lekeitio Malekoia tabernan.
- 2017/ Bilboko K-Toño Frade erakusketa aretoan.
- 2018/ Bilboko Kasko jatetxean.



# Abuztuaren 8tik 14ra

## Amadou Sy

### Naturak emana

#### **AMADOU SY (Mbour, Senegal, 1977)**

Ziortza-Bolibarren bizi den artista eskultorea da. Eskultore ofizioa “maisu-aprendiz” moduan ikasi du familian eta prestakuntza artistikoa Dakarreko (Senegal) Soumbédioune Artisau-herrian jaso du, 2011n eskultura modalitateko Artisau Arte Lanbide txartela eskuratuz. Bizkaian zehar hainbat erakusketetan parte hartu du eta bere artisau lanari esker 2022 honetan Bizkaiko Diputazio Artisau Zigilua bereganatu du. Euskal Herriko eta Afrika mendebaldeko basoetako egurra eskuz lantzen du. Erakusketa honetan naturarekin duen harremana erakutsiko du.

#### ERAKUSKETAK

- 2017/ Bilbao AUA galerian “Afrikar eskultura garaikidea” erakusketa, Samba Sy eskultorearen ondoan.
- 2019/ Markina-Xemeingo HHI/(C.E.P.A)n atzeritar ikasle-artisten gabonetako erakusketa, Amadou Sambou artista plastikoarekin batera.
- 2021/ Bilboko Zorrozaurreko La Terminalean “Afrika eguna”.
- 2021/Lea Artibaiko “Ekintzaitetasunaren eguna”.



# Abuztuaren 15etik 21era

## Edurne Naberan eta Nora Goyalde

### Adibidez, zuria

#### **EDURNE NABERAN LETURIA** **(Lekeitio, 1997)**

Arte Gradua ikasi zuen UPV/EHUn eta jarraian Pintura masterra egin zuen (2020-2021). Bere lana piktorkoa den arren, askotan collagea ere tartekatzen du, material ezberdinez egindako piezak sortuz. Kapaz kapa doa bere lana osatzen eta forma eta koloreari garrantzi handia ematen dio. Pintura masterrak erakusketa kolektibo ezberdinetan parte hartzeko aukera eman dio.

#### ERAKUSKETAK

- 2021/ Bergarako Aroztegi aretoan.
- 2021/ Bilboko Zawpen.
- 2021/ Gasteizko Vital aretoan.
- 2021/ Durangoko Arte eta Historia Museoa.
- 2022/ Bilboko AIRE galerian.

#### **NORA GOYALDE** **(Donostia, 1998)**


Arte Gradua ikasi zuen UPV/EHUn eta bertan Increate masterra egin zuen, 2021ean amaituz. Bere praktika artistikoa zabala da eta ez du beti modu berdinean lan egiten. Azken aldian soinu eta ahotsekin dabibil lanean eta elektronikara ere sartu du bere lanean. Obra piktorkoagoa egiten duenean material ezhoikoeekin collageak sortzen ditu. Donostiako Azpi kultur elkarteko kidea da.

#### ERAKUSKETAK

- 2021/ Bilboko Rekalde aretoan, Ertibil erakusketa ibiltarian "Zulo verde" lana.
- 2021/ Bilboko AIRE galerian "Trebol".
- 2022/ Montehermoso Gasteizko kultur zentroan bakarkako erakusketan "Behi Korua".



Edurne Naberan Leturia



Nora Goyalde



**lekeitioko  
udala**

**Eskolape aretoan**

19:00etatik 22:00etara  
gehi artistak zabaltzen duen orduetan